**Zk-548**

ERABAKIA, 1996ko abenduaren 18koa, Industri, Energi eta Meategien Administraziorako zuzendariarena, igogailuetako sarreretan jarri beharreko solairu-adierazgarrien ereduak onesteko prozedura ezartzen duena.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1996ko azaroaren 21eko Aginduaren bidez, igogailuetako sarreretan jarri beharreko solairu-adierazgarrien instalazioa arautzen da.

Aipatutako aginduaren azken xedapenetariko lehenengoak ahalmena ematen dio Industri, Energi eta Meategien Administraziorako Zuzendaritzari jarraibideak eman ditzan, aginduan xedatutako beharkizunak bete eta aplika daitezen.

Aipatu agindua berehala indarrean jarriko dela ikusirik, nahitaezkoa da solairu-adierazgarriek bete behar dituzten baldintza teknikoak eta onesteko erabiliko den prozedurarako zenbait puntu zehaztu, erabaki eta ezartzea.

Ondorioz, aipaturiko lege-manuak eta gainerako xedapen orokor eta baterakorrak aztertuta, hauxe

ERABAKI DUT:

*1. atala.*– Solairu-adierazgarriek bete beharreko baldintza teknikoak.

Aipaturiko aginduaren 4. ataleko 2. puntuan 3. ataleko f) eta g) idazatiei buruz aipatzen diren baldintza teknikoak bete ote diren frogatu ahal izateko, eskatzaileak honako egiaztagiri hauek aurkeztu behar ditu:

a) Markoa eta solairu-adierazgarria egiteko erabili den material guztiei buruzko egiaztagiria, fabrikatzaileak egina. Materialak plastikozkoak badira, ez erretzeko dituzten ezaugarriak adieraziko dira.

b) Erabilitako koloreei buruzko egiaztagiria, laborategi kreditatuak egina. Ondorengo koloreen proba UNE-48-103-94 Arauan aurrikusitakoaren arabera egingo da, hau da:

– Berde ilunaren proba UNE S 3060 G (L* = 60,9, a* = - 56,5 b* =23,3) Araua erreferentziatzat hartuta.

– Hori argiaren proba UNE S0570 Y (L* = 100,3, a* =6,3, b* =86,7) Araua erreferentziatzat hartuta.

Eta, erabilitako koloreen osotasunaren eta aipatutako erreferentzien arteko aldea neurtuko da, UNE 48-073-94/3 Arautegiko E* (CIE 1976). Kolore berde ilunean E* ez da 15 baino altuagoa izango, kolore hori argian, berriz, ez da 17 baino altuagoa izango.

c) Pinturen itsaspena egiaztatzen duen agiria, laborategi kreditatuak egina. UNE-EN-ISO-2409 Arauaren arabera egingo da proba (metodoa: sare-itxurako ebakidura), eta agirian ondorengo hau egiaztatuko da: solairu-adierazgarria egiteko prozedura erabiliz prestatu den eta aipatutako kolore biak dituen laginari probak egin

**N°-548**

RESOLUCIÓN de 18 de diciembre de 1996, de la Directora de Administración de Industria, Energía y Minas, por la que se establece el procedimiento de autorización de modelos de indicadores de planta en los accesos a ascensores.

La Orden de 21 de noviembre de 1996, del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca regula la instalación de indicadores de planta en los accesos a ascensores.

La Disposición Final Primera de la referida Orden faculta a la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas para dictar las Instrucciones necesarias para la ejecución y aplicación de las disposiciones contenidas en la misma.

Ante la inminente entrada en vigor de la referida Orden es necesario establecer, determinar y concretar las condiciones técnicas exigidas a los indicadores de planta, así como otros aspectos del procedimiento de autorización.

En su virtud, vistas las disposiciones legales citadas y otras de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

*Artículo 1.*– Acreditación de las condiciones técnicas de los indicadores.

Para acreditar la justificación del cumplimiento de las condiciones técnicas de los indicadores de piso referidos en el punto 2, del Artículo 4.º de dicha Orden, en relación con los apartados f y g del Artículo 3 de la misma Orden, el solicitante deberá acompañar la siguiente Certificación:

a) Certificado del fabricante de todos los materiales del indicador y del marco. En el caso de materiales plásticos deberá indicarse las características de resistencia al fuego.

b) Certificado de los colores utilizados, emitido por laboratorio acreditado. El ensayo se realizará tomando como referencia para los siguientes colores la Norma UNE-48-103-94:

Para el color verde oscuro, se tomará como referencia el color UNE S 3060 G (L* = 60,9, a* = - 56,5, b* =23,3).

Para el amarillo pálido, se tomará como referencia el color UNE S0570 Y (L* = 100,3, a* =6,3, b*=86,7).

Y se medirá la diferencia de color total, E* (CIE 1976) de la Norma UNE 48-073-94/3, entre los colores utilizados y las referencias indicadas. Para el color verde oscuro el E* no será superior a 15 y para el amarillo pálido a 17.

c) Certificado de adherencia de las pinturas, emitido por laboratorio acreditado. El ensayo se realizará según la norma UNE-EN-ISO-2409(método de corte por enrejado) y deberá acreditarse que una muestra preparada con el mismo procedimiento a utilizar en el indicador, y que contenga los dos colores, obtiene una clasifi-

zaizkiola, eta ez dela 1etik gorako klasifikazio mailan sartzen. Proba egiteko ez dago zinta autoitsasgarria jarri beharrik.

d) Aurkeztutako ereduetariko batean erabili diren bi koloreen pelikularen lodierari buruzko egiaztagiria, UNE 48-031-80 Arauan aurrikusitakoaren arabera.

e) Pintura edo tinten fabrikatzailearen egiaztagiria, non adieraziko baita UNE 48-251-92 Arauari jarraiki egindako zahartze-azeleratu probarekiko iraunkortasuna. Proba esposizio ganbaran egingo da, argi ultramore/kondentsaziodun iluntasun zikloak txandakatuta. Zikloak: (4h-ko UV 60ºCtan/4h-ko CON 50ºCtan).

Probeta gisa erabili den solairu-adierazgarria 80 ordutan esposizioan eduki ondoren, emaitzak honako hau frogatuko du: haren koloreak b) idazatian adierazitako parametroen barruan daudela.

f) Pinturaren oinarria altzairu karbonoduna bada, pinturen eta tinten frabrikatzailearen egiaztagiria aurkeztu behar da, non adieraziko baita gatzaren korrosioarekiko erresistentzia 400 ordutik gorakoa dela, INTA 160664-74 (ASTM-117) Arauan aurrikusitako probaren arabera.

Aipatutakoak ez diren bestelako arauak ere erabili ahalko dira, baldin eta emaitzak parekoak badira.

*2. atala.*– Solairu-adierazgarrien ereduentzako baimena.

Solairu-adierazgarrien ereduentzako baimena Zuzendaritza honen erabakiz emango da.

Eskabidearekin batera adierazlearen ereduaren 6 ale aurkeztu behar dira Sail honen Lurralde Ordezkaritzan, eskatzaileari lurraldez dagokion Ordezkaritzan.

Ereduak Ordezkaritzaren puntzoiarekin zigilatuko dira, eta hurrenkeraren arabera izendatuko dira. Ereduetariko bat ONCEri bidaliko zaio, Aginduaren 4. atalean eskatzen den araberako txostena egin dezan.

ONCEk egindako txostena jasotakoan, Industri, Energi eta Meategien Administraziorako Zuzendaritzara bidaliko da, behar besteko informazio duen txostenarekin batera.

Behin espedientea erabakiz gero, Zuzendaritzak erabakiaren kopia bana bidaliko die interesatuei eta Lurralde Ordezkaritzei. Erabakia solairu-adierazgarria onesteko bada, ereduaren ale bat bidaliko die erabakiarekin batera.

Ereduetariko seigarren alea Zuzendaritzaren eskutan geratuko da, egoki derizkion probak egin ahal izateko.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko abenduaren 18a.

Industri, Energi eta Meategien Administraziorako zuzendaria,
MARÍA LUISA FUENTES ALONSO.

cación no superior a 1. El ensayo no requerirá la aplicación de cinta autoadhesiva.

d) Certificado de espesor de película de los dos colores utilizados en una de las muestras presentadas, según la Norma UNE 48-031-80.

e) Certificado del fabricante de las pinturas o tintas en el que se indique la resistencia al ensayo de envejecimiento acelerado según la Norma UNE 48-251-92, en cámara de exposición a ciclos alternos de luz ultravioleta/oscuridad con condensación, utilizando ciclos de 4 h UV a 60ºC/4h CON a 50ºC.

El resultado tras una exposición de 80 horas, deberá acreditar que los colores del indicador utilizado como probeta, se mantienen entre los parámetros del apartado b.

f) Si el soporte de la pintura es de acero al carbono, deberá presentarse un certificado del fabricante de las pinturas o tintas en el que se indique que la capacidad de resistencia a la corrosión salina según la Norma INTA 160664-74 (ASTM B-117), es superior a 400 horas.

Podrán utilizarse otras normas distintas a las indicadas siempre que aporten resultados que puedan considerarse equivalentes.

*Artículo 2.*– Autorización de modelos de indicadores.

La autorización de los modelos de indicadores se realizará mediante Resolución de esta Dirección.

Junto con la solicitud se deberán presentar 6 muestras del indicador en la Delegación Territorial de este Departamento competente por razón del territorio.

Las seis muestras deberán ser identificadas con el punzón de la Delegación, numerándose correlativamente y remitiéndose, una de ellas, a la O.N.C.E. para que se emita el informe correspondiente, según se indica en el Artículo 4.º de la Orden.

Recibido el informe de la O.N.C.E., se remitirá junto con la solicitud debidamente informada, a la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas.

La Dirección, una vez resuelto el expediente, remitirá copia de la resolución a los interesados y a las Delegaciones Territoriales. Si la resolución es favorable, junto con la resolución, se remitirá una muestra del indicador.

La sexta muestra se quedará a disposición de la Dirección para la realización de los ensayos que se consideren oportunos.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de diciembre de 1996.

La Directora de Administración de Industria,
Energía y Minas,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.